

Ideiaren deskribapena

HoloMeet plataforma bat da, hologramak erabiliz birtualki elkartzeko modu berri bat eskaintzen duena. Erabiltzaileek beren burua 3D holograma moduan erreproduzitu dezakete denbora errealean, interakzio naturalago eta gertuagoa sortuz, aurrez aurreko bilerak produzituz. Zerbitzuak hainbat sektoretarako balio du, hala nola enpresa, hezkuntza eta ekitaldietarako.

HoloMeet-ek hainbat Garapen Jasangarrirako Helburuarekin bat egiten du: ODS 4 – Hezkuntza Kalitatezkoa: Plataforma hezkuntzan erabiltzeak irakasle eta ikasleen arteko elkarrenergina hobetu eta hezkuntza globalizatu dezake. ODS 8 – Lan Duina eta Hazkunde Ekonomikoa: Teknologia honek distantzia-lanaren efizientzia handitzen du, berrikuntza eta produktibitatea sustatuz. ODS 13 – Klimaren Aldeko Ekintza: Distantzia-bilerak eta -ekitaldiak sustatuz, bidaiatzeko beharra murrizten du, karbono aztarna txikituz. ODS 9 – Industria, Berrikuntza eta Azpiegiturak: Teknologia berritzailea izanik, ekonomia digitala eta berrikuntza bultzatzen ditu.

HoloMeet-ek hainbat aukera eskaintzen ditu: Laneko Distantzia: Distantzia-lana gero eta handiagoa da, eta horrek teknologia berritzaile hau eskatzen du. Hezkuntza eta Prestakuntza Plataforma Digitalean: Holograma bidezko klaseak eta tailerrak eskaintzeko aukera hezkuntzan. Industria Teknologikoaren Hedapena: Erraz zabaltzen bada produktu hau, pertsona gehiagok erosiko dituzte gure produktuak. Ekitaldi Birtualen Merkatua Hazten: Konferentzia eta ekitaldi birtualen demanda handitzen ari da, Holomeet erabiltzea da ideia onena. Karbono dioxidoa ez du botatzen: HoloMeet-ek bidaietan ez du ingununeari kaltetzen ez duelako CO2-rik botatzen.

Hala ere, HoloMeet-ek mehatxu batzuk ere jasaten ditu: Lehiaketa Gogorra: Bideokonferentzia plataformen merkatuan dagoeneko enpresa handiak daude, hala nola Microsoft, Meta edo Zoom. Teknologiaren Kostu Handia: Hasierako inbertsio altuak bezeroen eskura egoteko zailtasuna sor dezake, hau da garestiak izango ziren. Adopzio Mugatua: Erabiltzaileek teknologia berriak onartzeko denbora behar izan dezakete, batez ere ekipamendu gehigarria behar bada. Arazo Teknikoak eta Azpiegitura Eskakizunak: Holograma interaktiboak erabiltzeko beharrezkoak diren banda zabalera eta ekipok mugatzaile izan daitezke. Aldaketa Teknologiko Azkarrak: Merkatuaren dinamika azkarrak produktua zaharkitu dezake.

HoloMeet-en indarrak ere badira: Teknologia aurreratua: Holograma interaktiboan erabilera desberdina da, hau da, aurreratua besteengan konparatua. Esperientzia Errealista: Aurrez

aurreko bilerak simulatzen ditu, erreala da. Entretenigarria: Enpresa, hezkuntza, diseinu eta entrenimendu alorretan erabiltzeko aukera. Eskuragarritasun Globala: Plataforma hodeian oinarritzen da, edozein lekutatik erabiltzeko.

Baina badira ahuleziak ere: Kostu Operatibo Handiak: Teknologia garatzeko eta mantentzeko inbertsioak handiak izan daitezke. Ez jakitea plataforma erabiltzen: Bezero arruntek (ez teknologikoki trebeak) zailtasunak izan ditzakete plataformarekin. Zailtasunak hologramak konektatzean eta ez ondo entzutea.

HoloMeet Kooperatiba forma juridikoarekin funtzionatzen du, eta bazkide guztiek enpresaren jabe eta erabakiak elkarrekin hartzen dituzte. Zuzendari bat daukagu kontrolatzeko, baina boterea denon artean banatzen da. Kooperatiba honetan, hologramak saltzen ditugu, produktu eta zerbitzuak eskaintzen, eta abantaila handiak ditugu: Demokrazia, hazkunde kolaboratiboa eta lankidetzaren teknologikoan parte hartzea. Gure kooperatiban, erabakiak denon artean hartzea oinarri dugu.

Aukeratutako neurri aipagarrienak hauek dira: Soldata Berdintasuna: Bermatu gizonek eta emakumeek lan bera egiteagatik soldata bera jasotzen dutela, esperientzia eta ardura maila bera izanik. Lidergo Aukera Berdinak: Ziurtatu gizonek eta emakumeek aukera berdinarik dituztela lidergo-postuetara iristeko. Horretarako, lidergo-prestakuntzak bi generorentzat eskaini. Gizonen eta Emakumeen ordutegi bera: Enpresa honetan, gizonek zein emakumeek ordutegi berean egingo dute lan. Honek langile guztientzako baldintza eta aukera berdinarik bermatzen ditu, generoa edozein dela ere. Lan-denboraren bidezko banaketak giro inklusiboa, bidezkoa eta errespetuzkoa sustatzen du.